

GARAPEN, GIZARTE ETA EKONOMIA ERAMANGARRIAK



ELA

EUSKAL SINDIKATUA



Gure lan sindikalean ingurugiroaren eta Ekologiaren hainbat balore integratu nahi ditugu, asmo horretan hasita gaude.

Sentimendu hau ELAn afiliatuta dauden langileen artean zabaltzea eta hedatzea dugu helburutzat, informazio sistematizatua erabiliz horretarako.

Ingurugiroarekiko konpromezua hartu nahi dugu, piskanaka-piskanaka, ikuspegi sindikaletik begiratuta eta hobetoen ezagutzen dugun esparrutik, lantegietatik, lan eginez.

Lantegietan ingurugiro-baldintza hobek eskatzea eta lana sortzea bezalako gaiak, Negoziazio Kolektiboaren helburu diren gaiak, oso ondo ezagutzen dituzte Prebentziorako ordezkariek, bai eta ELAren ordezkariek eta militanteek ere.

AURKEZPENA

Agiri honek gogoetak eta iritzi-alderaketak suspertu nahi ditu edukia aberastuko dutelako, sindikalismoa inoiz baino biziagoa eta egunerokoagoa izan dadin.





ZER DA GARAPEN ERAMANGARRIA?

Azken urteotan “eramangarri” edo “jasangarri” hitzak erabili izan dira garapen mota berri bat definitzeko. Kontzeptu berri hori modu nahasi eta zehazgabean erabiltzen dute, sarritan, plataforma politiko, hiritar, zientifiko eta sindikalek.

Nolanahi ere, **nahiz eta hitzetik hortzera erabiltze horrek moda semantikoa dirudien, kontzeptu horrek eduki sakon eta iraultzailea du, gure ekonomia kutsatu duen pentsaera neoliberalari eta berorrek defendatzen duen ekoizpen eta kontsumo ereduari dagokienez.**

Lehen “garapena” deitzen genionari “garapen eramangarria” deitzeko arrazoia, orain arteko garapen motari eusteko ezintasuna da. Izan ere, garapen mota hori premisa faltsu batean oinarritzen zen: aldagai fisikoen kontsumo eta ekoizpen mugagabea —nahiz eta aldagai horiek berez mugatuta dauden—, edo biztanle-kopuruaren hazkunde mugagabea, kontutan hartu gabe gure lurra bere muga fisikoak dituela, eta, horrez gain, bere baliabide naturalak agortzeko bidean daudela, neurrigabeko ustiapenaren ondorioz. Gogoan izan behar dugu lehengai asko ezin ditugula agortu ondoren berriz sortu; adibidez: mineralak, petrolioak, hainbat espezie, etab.

Hori horrela izanik, honako hau esan dezakegu:

- “Ekonomiaren hazkundeak”, sarritan eta modu okerrean “garapena” kontzeptuarekin nahasten denak, ezin iraun dezake denbora luzez.
- **Merkatu ekonomiaren ekoizpen eta kontsumo ereduari lotutako bizimodua aldatu beharra dago,** etorkizuneko belaunaldiak ere geuk gozatzen dugun ongizate maila berdina eskura dezaten.



- Horren ondorioz, nazioarteko plataformek garapen eramangarria kontzeptua proposatu dute, ekoizpen eta kontsumo motak eta merkataritza-harremanen etika aldatzen hasteko, munduak bide berriak urra ditzan. **Eredu berri horrek dakarren garapen iraunkorrek ingurune fisiko eta naturala errespetatuko du, bidezkoa eta zuzena izango baita.**
- **Etorkizuneko filosofia hori geure bizitzaren esparru guztietara eraman behar dugu. Bai langileak bezala eta bai sindikalistak bezala.**

EUSKAL HERRIA: 4 GALDERA ETA GOGOETA BAT

Euskadiren azken bi mendeotako bilakaerak, batez ere dimentsio fisikoei eta ingurugiroari dagokienez, garapen eramangarria zer den ulertzea errazten duten konklusioak ateratzea ahalbidetzen digu.

XX. mendean zehar, esparru eta baliabide mugatuak zituen lurralde bat okupatu eta agortu egin dugu. XX. mendeak izugarritzko okupazioa eragin du nekazaritza-eremuetan, hiriak, lantegiak, azpiegiturak, etxebizitzak etab. eraikitzeko. XXI. mendeari begira...

1. **Zer gertatuko da garapen eredu berdinari** —hazkunde eredu berdinari, hobeto esanda— **eusten badiogu** XXI. mendean?

2. Eutsi ahal izango ote diegu gaur egungo hazkunde-tasari, lur-okupazioari eta kutsadurari XXI. mendean? Jarraitu ahal izango ote dugu burdina eta gas naturala bezalako baliabideak agortzen, balio handiko ekosistema naturalak hondatzen, XXI. mendean?
3. **Euts diezaiekegu kontsumoaren hazkundeari eta naturaren hondamenari?** Jarrai dezakegu etxeko eta industriako hondakinak sortzen eta pilatzen datozen ehun urteotan? Jarrai dezakegu espezie naturalak suntsitzen?
4. Egin ote dezakegu hori beste herri, lurralde eta belaunaldien kontura izan gabe?

Horrelako gogoetak, dena den, ez dira garapen eramangarria kontzeptuak —nolabaiteko presaz— egitera behartzen gaituen bakarrak. Izan ere, argi dago lurrak gero eta ahalmen murriztagoa duela gizakion eta gainerako espezie naturalen bizitzaren euskarria izateko, gaur egungo ekoizpen eta kontsumo ereduak bere horretan irauten badu.

Horren guztiaren ondorioz, **ekonomiaren eta ingurugiroaren nahiz ekologiaren arteko harremanak modu positiboan zuzendu behar dira. Kontserbazioak eta aurrerapenak bat etorri behar dute garapenarekin, eta ez kontrajarri, orain gertatzen ari den bezala.**



NORABIDEA ALDATZEA

Hori horrela, **munduak eta haren herriek norabidea aldatu behar dute ezinbestean**. Zenbat eta arinago aldatu, orduan eta txikiagoak izango dira disfunczioak eta oztupoak. Eramangarritasuna ahalbidetzeko, hortaz, neurri juridiko, sozial, ekonomiko eta teknikoak txertatu beharko ditugu geure politikan eta geure plangintzan.

Ingurugiro eta Garapenerako Mundu Batzordean, 1987an, honako definizio hau eman zuten garapen mantengarriari buruz: **“egungo balaunaldien beharrak asetzen dituen garapena, etorkizunean etorriko direnek beren beharrak asetzeko izan behar duten gaitasuna xahutu gabe”** (Brutland Batzordea). Termino honek eta berekin dakarren portaera-ereduak hainbat interpretazio desberdin jaso dituzte, kontzienteki erabat kontraesankorrak izan direlarik batzuk, hau da, modu zeharo arduragabean jokatu da hainbatetan.

Nazio Batuen Ingurugirorako Programaren (NBIP) partaidetzarekin lan garrantzitsu bat egin da, eta honek ildo nagusiak markatu ditu, oraindik ere ematen baita nahasketa **“garapen mantengarrria”, “hazkuntza mantengarrria”** eta **“erabilera mantengarrria”** terminoen artean, esangura berdinekoak balira bezala. Baina ez dira berdinak, ez horixe!

“Hazkuntza mantengarrria” termino kontraesankorra da berez: gauza fisiko bat ezin da inolako mugarik gabe hazi.

“Erabilera mantengarrria” bakar-bakarrik baliabide berriztagarriari aplikatu dakieke, eta berriztatzeko gaitasunaren eritimoa gainditu gabe erabiltzea suposatzen du.

Alabaina, **“LURRA ZAINDU”** txostenean ezartzen den bizitza mantengarrirako estrategiak honako hau esaten du garapen mantengarriari buruz, **giza bizitzaren kalitatea hobetzeko bidea dela, garapen horri eusten dioten ekosistemek duten birsortzeko gaitasuna inoiz gainditu gabe jokatuz ordea.**

“Ekonomia mantengarrria” garapen mantengarriaren emaitza da. Hark bere baliabide naturalezko oinarria mantentzen du, eta egokituz eta ezaguera, antolaketa eta eraginkortasun tekniko handiagoez garatzen jarrai dezake, jakindurian ere aurrera eginez beti ere.

GIZARTE MANTENGARRI BATERAKO PRINTZIBIOAK

Gizarte mantengarrri bat, azken batean gure izatearen beraren helburua baita, hemen era laburrean azaldu behar ditugun bederatzi printzipioekin bat bizi da; gainera, **printzipio hauek lagundu behar dute egun daukagun ekoizpen eta kontsumo ereduak berbideratzen.**

Egungo garapenaren alderdi gehienak porrot egiten ari dira, eta epe luze eta mundu mailan mantentzea ezinezkoa gertatzen da dagoeneko, zeren eta giza beharrak era osatugabean asetzen baititu, euskarriztat dituen baliabideak bera ere, ura, airea, lurra, eta abar, suntsituz edo hondatuz sarri askotan. **Garapena behar dugu, jakina, baina honen ardatza pertsonen izan behar dute, eta giza izatearen beraren hobekuntzara bideratuta egon behar du, naturaren aniztasuna eta produktibitatea gordez eta mantenduz aldi berean.**





Kontserbazioa eta garapena ez baitira elkarren etsai, zeren eta, gure planeta honetan bizitza mantenduko bada, ezinbesteko prozesu baten funtsezko alderdiak direla aitortu behar baitugu. **Ezin dugu “kutsadura eta ingurugiroaren suntsipena aurrerapena edukitzeko ordaindu behar den prezioa” dela dioen printzipio faltsu hori arduragabeki erabiltzen jarraitu...** “Lanpostuak nahi baldin baditugu, lana azken batean, kutsatu eta gure baliabideak suntsitu beharra dago”. Hori al dugu, bada aurrerapena? Nolako aurrerapena liteke horrelakoa?

Munduko herrialde eta plataforma asko eta askotatik proposatzen ari den garapen mantengarrirako estrategiak. Nazio Batuek bezalaxe, zera dio, **gizateriak bakar-bakari birjartzeko gai dena hartu behar duela naturatik**. Eta honek zera dakar berekin, naturaren mugak errespetatzen dituzten eta muga horien baitan funtzionatzen duten bizimoduak eta portaerak geureganatu behar ditugula.

Eta hau lortzeko ez ditugu teknologia modernoak eskaini dizkigun onura garrantzitsu eta handiak bazterrean laga behar, zeren eta teknologia ere muga horiexen baitan erabil baitezakegu.


Gainera, teknologia aurreratuak ekarri dizkigun onurak gaitzetsi gabe egin daiteke hori, teknologiak ere aipatutako mugen artean ihardun dezake eta.

Gizarte eramangarriaren printzipioak elkarri lotuta daude, eta elkarri laguntzen diote:

- 1. Izaki bizidunak errespetatzea eta zaintzea.** Printzipio etiko horren arabera, garapena ezin egin daiteke beste talde edo herrien kontura, ezta etorkizuneko belaunaldien kontura ere.
- 2. Giza-bizitzaren kalitatea hobetzea.** Horixe da garapenaren benetako xedea. Ekonomiaren hazkundea, orain arte modu arriskutsuan ulertu den moduan, garapenaren osagai garrantzitsua da, batez ere garatzeko

bidean dauden herrietan, baina ezin dugu hazkunde hori azken xedetzat hartu edo mugarik gabe luzatu, Euskadin erraz asko ikus dezakegun bezala.

- 3. Lurraren bizitasuna eta aniztasuna kontserbatzea.** Gure planetaren bizia sistema ekologikoetan oinarritzen da. Bizitzeko ahalmenak iraun dezan, ekosistemen berriztapena ahalbidetu behar dugu. Baliabide berriztagarriak modu eramangarrian aprobetxatu behar ditugu. Erabilpena eramangarria da baliabideen berriztapena ahalbidetzen badu.
- 4. Berriztagarriak ez diren baliabideak ahalik eta gutxien agortzea** (petrolio, gasa, ikatza, etab.). Gogoan izan behar ditugu birziklapena, ordezkagai berriztagarriak, etab.
- 5. Lurraren karga-ahalmena ez gaintzea.** Lurreko ekosistemek karga-ahalmen mugatua dute. Muga horiek lurraldez lurralde aldatzen dira, eta ondorioak neurtzeko pertsonen kopurua hartu behar da kontutan, eta, halaber, pertsona bakoitzak —ondo eta gaizki— erabiltzen dituen elikagaiak, ura, energia eta lehengaiak.
- 6. Norberaren jarrera eta ohiturak aldatzea.** Bizimodu eramangarriaren etika bereganatzeko **ezinbestekoa dugu geure balioak berraztertzea eta geure jokabidea aldatzea**. Horrek ez du inola ere traumatikoa izan behar; aitzitik, etika berrira hurbiltzen gaituzten balioak sustatu behar ditu gizarteak, eta bizimodu eramangarria oztopatzen dituztenak baztertu egin behar ditu.



7. Eskuduntza eman komunitatei, beraien ingurugiroaz ardura daitezen. Komunitateak eta hiritarren elkarteak tresnarik egokienak dira pertsonak gizartearen alde lan egin dezaten eta beraien kezkek plazara ditzaten. Garapen eramangarriak dakarren ikuspegi berriak partehartzean oinarritutako demokrazia indartzen du, herriaren partehartzeari buruzko irizpide berriak eskaintzen dituelako.

8. Garapena eta kontserbazioa integra ditzakeen marko nazional bat sortzea. Nazio mailako neurriek honako hau egin beharko lukete:

- Eskualde bakoitza sistema integratu bezala tratatzea.
- Sistema bakoitzak gainerako sistema handiago eta txikiago guztietan —ekologia, ekonomia, gizarte eta politika alorrekoak— eragina duela eta beraien eraginpean dagoela onartzea.
- Gizakia sistemaren osagai nagusitzat hartzea.
- Politika ekonomikoa ingurugiroaren karga-ahalmenarekin lotzea.
- Baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzen dituzten teknologiak sustatzea.
- Baliabideen erabiltzaileak behartzea onura dakarren erabilpenaren kostu sozial osoa ordaintzera.

9. Mundu mailako ituna eratzea. Eramangarritasuna mundu mailan lortzeko itun sendoa eratu behar dute nazio eta herri guztiek. Munduko garapen mailak oso desberdinak dira, eta, horren ondorioz, diru-sarrerara txikiak dituzten herriei lagundu behar zaie, garapen eramangarria izan dezaten eta beraien ingurugiroa babes dezaten.

Herri guztiek gozatuko dute mundu mailako eramangarritasunaren onura. Lortzen ez badugu nekez iraungo dute bizirik. Berdintasunak, hortaz, belaunaldiak eta lurraldeak gainditzen ditu.





LANGILEEN ETA SINDIKATUEN EGINKIZUNA

Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Bilkurak (Rio 1992) onartu zuen “**21. Programaren**” 29 kapituluak azaltzen duenez, langileek eta sindikatuek eginkizun garrantzitsua dute programa hori ezartzeko, hau da, garapen eramangarria mundu mailan gauzatzeko.

Programa horrek hauxe dio hitzez hitz:

*“Gobernuek, merkataritzak eta industriak **langileen eta sindikatuen partehartze aktiboa bermatu behar dute**, ingurugiroaren eta garapenaren eremuko politikak eta programak —bai nazio mailakoak eta bai nazioartekoak— eratu, gauzatu eta ebaluatzean.”*

*“**Sindikatuek, enpresariak eta gobernuek elkarrekin lan egin behar dute, garapen eramangarria modu bidezkoan aplikatu dadin.**”*

“Garapen eramangarriaren alderdi guztiei lotutako politikak definitzen, garatzen eta sustatzen jarraitu behar dute sindikatuek.”

“Sindikatuek eta enpresariak erreferentzia-marko bat ezarri beharko lukete ingurugiro-politika amankomuna gauzatzeko, eta, halaber, lehenetsunak ezarri lan-esparrua eta enpresak inguruarekin duen harremana hobetzeko.”

21. agendak ematen eta aitortzen duen protagonismo garrantzitsu hori —garapen eramangarria martxan jartzean eta interpretatzean sindikatuek duten eginkizuna— zehatzago ageri da 29.11 epigrafean, ondokoa esaten baitu:

Sindikatuek honako hau egin behar dute:

- a) Lantokian egiten diren ingurugiro-auditoretzetan eta ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko azterketetan langileen partehartzea ziurtatzea.*
- b) Ingurugiroari eta garapenari buruz herri-komunitateetan gauzatzen diren ekintzetan parte hartzea, eta, horrekin batera, guztientzat interesa izan dezaketen arazoei buruzko elkarlana bultzatzea.*
- c) Garapen eramangarriari buruzko ekintzetan parte hartzea, bai eskualdeko eta bai nazioarteko erakundeetan, batez ere Nazio Batuen sisteman.”*

Labur esateko, sindikatuek eta langileek lehenetsuneko eginkizuna dute garapen eramangarria interpretatzean eta gauzatzean, eta, orobat, garapen eramangarriaren aldeko lankidetzara erraztean.

Laguntzailea:

EUSKO JAURLARITZA

LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO
SAILA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA